

EHHAren lehen liburukia

OIHARTZABAL BIDEGORRI, Beñat

Euskaltzain osoa eta lehen liburukiaren arduradun akademikoa

Atsegin handia da enetzat egun EHHAren lehen bi liburukien aurkezpen ekitaldi honetan parte hartzea, eta, oroz lehen, zorionak eman nizkieke argitalpen hau bideratu duten guziei, azkenean argia ikusten baitu hamar bat urte honetan argirako bidea ezin aurkiturik egona den lan honek. Alabaina, orok dakigun bezala, euskaltzale eta euskalari guziek aspaldian berantetsia zuten lana aurkezten da gaur. Bi gisatara berantetsia: alde bate-tik, aitzin solasean adierazten den bezala, gisa horretako ikerlanak beste herrietan, Europan behintzat, aspaldian, XX. mendearen lehen partean edo erdi aldean, egin baitziren, eta bildots-kuku gisa agertzen baita euskal hizke-ren atlas hau, baina beste aldetik ere, Euskaltzaindiaren barneko egitasmo gisa ere, bide luze eta gorabeheratsua korritu behar izan baitu argitaralpe-neko atea aurkitu aitzin.

Hemen zaudeten entzule guziek orain ikusten eta laster eskutan atxiki-tzen ahalko dituzue EHHAren lehen eta bigarren liburukiak. Itxura ederre-ko liburu gotorrak, hain segur, baita, oroz gaisetik, informazio balios eta aberatsa dakartenak ere, bai hizkuntzalarientzat, haientzat bereziki egiten baitira hizkuntza atlasak, baina euskaltzale anitzentzat ere, segur bainaiz batek baino gehiagok gogotik hostokatuko dituela liburu haietako orrial-deak halako edo holako hitza aurkituko ote duen, eta non, jakin nahiz.

Gainerako hizkuntza atlasak bezala, EHHAren lehen liburukiak, bigarre-nak bezala, hizkuntza mapak eskaintzen ditu, hots, hizkuntza-item andana baten gauzapen desberdinek lurralde batean duten tokizko banaketa erakus-

tera ematen dutenak. Bizkitartean, badute paperezko argitalpen horiek, orain arte beste herrietan eginikako holako lanetan ikusten ez den berezitasun bat, liburuak hartzean berehala ikusten dena: euskal atlaseko mapak interpretazio mapak dira, ez mapa biltzaile hutsak. Hobeki azal dezadan, laburzki bada laburzki, zertan datzan bi mapa mota horien arteko aldea. Hizkuntza atlasen tradizioa, positibismoak hizkuntzalaritzan utzi zuen ondorioetarik bat izan zen, eta luzaz ikertzaileek mapetan zuzen-zuzenean idatzen zituzten beren inkestetan bildu tokiko formak, ahal bezain zehaztasun handienarekin. Horregatik, toki askotan, atlasak liburu handi-handiak ziren, eskuz idatzitakoak. Ohiko atlas horien hurbileko eredu gisa, J. Séguyk eta J. Allières ohorezko euskaltzain zenak egin zuten gaskoieraren atlas ederra (*Atlas linguistique de la Gascogne*) aipa daiteke. Azkueren *Erizkizundi Irukoitza* ere (orain A.M. Echaideri esker erabilgarria, ikus *Iker-3*), ahal gutiagorekin eta beste baldintza batzuetan eginga izanagatik, eredu horretakoa zen.

Euskal hizkeren atlasa ez da arras holakoa: nahiz inkestaleku asko dituen (145), eta, ondorioz, estaltzen duen eremuan franko sare hertsia, hango mapak izari arruntekoak dira. Are gehiago, erantzun gisa oposaketa handien adierazgarri diren formak bistaratuak dira hango mapetan, ez erantzun guziak zein bere lekuan emanik. Hauen aurkitzeko maparen aitzinean den zerrendara jo behar da, han bai, herrialdeka antolatua den zerrendan aurkitzen baitira herrika bildu erantzun zehatzak, ortografia fonetikoan emanik. Aise da ulertzea, erantzunak beren forma fonetikoan zein bere tokian mapetan beretan idatzi behar izan balira, oso tamaina handiko mapak egin beharko zirela gurean ere, eta ezinezkoa izanen zela, edo oso zaila, erantzunen arteko aldeetan mailarik egitea. Lantaldeak, beste herrietako aitzineko esperientzia haietaz nolabait probetxu eginik, bestelako hautua egin du, alde batetik erantzun zehatzak herrialdeka antolatu inkestalekuen zerrendetan bildurik, eta bestetik mapa interpretatiboak eskainiz, datuen irakurketa errazteko. Horrek ondorio bat ere badu, haatik : mapa bakoitza interpretazioa denaz gero, egile bat ere badu, erran nahi baitu, datuen egituzteko orduan irizpideak aukeratzen dituen autore bat.

Lehen liburukiak zortzi sailtako hiztegi itemetako erantzunak biltzen ditu : intsektuak, arrainak, narrastiak, txoriak, piztiak, zerua eta eguzkia, eguraldia, eta elurra eta hotza. Ikusten den bezala, partez hiztegi berezietako

itemak ditugu, arrainak adibidez, itsas arrainak bereziki, eta partez eguneroko oinarrizko hiztegikoak, hala nola eguraldia. Itsas arrainei buruzko galdeez kanpo (hauek itsas hegiko inkestalekuetan baizik ez baitira galdetu), beste guziak 145 inkestalekuetan galdetu dira, haste-hastetik batzordeak inkestak egiterakoan finkatu zuen zerrenda baten arabera : Bizkaian 36, Araban 1, Gipuzkoan 36, Nafarroan 27, Lapurdin 15, Nafarroa Beherean 18 eta Zuberoan 11.

Lehen liburuki honek badu, bestalde, paperezko liburukiaz gainera, beste argitalpen bat, elektronikoa hau, aurrekoaren osagarri izanik, guziz bestelakoa dena, eta hitz laburrez aurkeztu nahi dizuedana orain, zinez uste baitut ereduzkoa dela. Argitalpen elektroniko hori, ez da CD-ROM batean aurkitzen, lantaldeak hastean egin gogo izan zuen bezala, baina zuzenean Euskaltzaindiaren webgunetik zuzenean eskura daiteke, urririk eta zailtasunik gabe. Programa berezi hori, 90 hamarkadaren hondar urteetan Aurtien Bai fondazioak EHHako lantaldearekin lan eginik informatikaren aldetik landu zuena, ikertzaileentzat bereziki egina izan da, bi gauza bereziki ekarririk : i) inkestetan bildu materiala - bai erantzunei berei dagokiena, bai haiek erdiestean bildurikakoa - modu antolatu eta arrazoizko batean eskaintzen du (herrika edo galderaka, erabiltzailearen hautura) ; ii) aukera ematen dio ikertzaileari atlasteko erantzunez baliatuz eta bere irizpideak aukeratuz bere mapak egiteko.

Ez da erraza elektronikoki erabiltzeko den lan tresna bat nolakoa den eta harekin zer egin daitekeen hitzez soilik azaltzea. Horregatik, hemen zenbait irudiren bidez ikusiko dugu nola eratua den programa berezi hori. (*EHHAren lehen liburukiaren argitalpen elektronikoaren aurkezpena irudietan egiten da*). Ikusten den bezala, aukera asko eskaintzen duen lan tresna da, etekin osoa ateratzen diona egina izan den landa lanari. Nahiz programa hori duela dozena bat urte eratu zen, aietasun eta zalutasunaren aldetik ez da batera gainditua, eta informatikan gertatzen diren aitzinamenduekin, esperantza atxiki daiteke noizbait interneten berean eskaintzen ahalko dela beste liburukientzat ere holako zerbitzu bat, edo honen iduriko bat.

Jean Haritschelharrek kargu hori 1995ean utzi zuenetik Andolin Eguzkitzak 2003an izan arte, EHHako lantaldeko buru egon naizen urteetan,

gostuan ibili naiz lantalde horretan lanean, anitz ikasiz, eta beti laneko nahikaria aurkituz lankide guzien partetik. Horregatik, hainbeste igurikatu dugun egun honetan, eskerrak bihurtu nahi dizkiet urte haietan ondoan izan ditudan ikertzaileei, bai orain arduradun jarraituz diren G. Aurrekoetxea eta X. Videgaini, bai eta argitalpen lan honetan zuzenean parte hartu duten beste lankideei ere, erran nahi baitu, I. Etxebeste, I. Kamino, J-J. Letamendia eta K. Segurolari. Ez ditut ahantzi nahi, bestalde, lehenagotik inkesta lanetan ibili ziren I. Atutxa, A.M. Echaide, eta J.M. Etxebarria ere. Orduko lan giroaren oroitzapena atxikitzen dut gogoan, funtsean ezin hobeki islaturik gelditzen baita aurkezten den lanean, eta bereziki lehen liburuki honen argitalpen elektronikoan, ene ustez ereduakoa baita gisa horretako lanetan.

Erran gabe doa ez nagokeela Adolfo Arejita, egitasmoaren oraingo buruari ere zorion hitzak eman gabe, bigarren liburukia argitara ekarriarik, eta ondotik etortzekoak direnak ere bide horretan emanik. Bizkitartean, eta badakit Adolfok, beste euskaltzain guziek bezala, bat eginen duela enekin honetan, beste norbaiti zor diogu EEHAren lehen liburukiaren aurkezpeneko azken esker onezko aipamena : Andolin Eguzkitzari, eiki, lehen liburuki hau eskainia zaion eta herioak gure artetik hartu zuenean lantaldeko buru zenari.